



Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

HONDARTZAKO BOLEIBOLA

JOKOAREN EZAUGARRIAK

Hondartzako boleiboleko kirolean, bi jokalariko bi taldek hartzen dute parte, sare batek erdibanatzen duen jokaleku edo kantxa batean. **Eskolako mailan**, hiru edo lau jokalarik osatzen dituzte taldeak, aldi berean hiru jokalaria jokalekuan daudela. Nahitaezkoa da parte hartzaile guztiek, gutxienez, set bat jokatzea partidari.

Jokoa honetan datza: baloia arauzko eran jaurti behar da sarearen gainetik aurkariaren zelaiko lurrera, eta norbere zelaiari lurra ukitzea galarazi.

Talde bakoitzak gehienez ere hiru aldiz uki dezake baloia (blokeoko ukitzea kontuan hartuta), baloia aurkariaren zelairi berriro bidaltzeko.

Jokalaria batek jarri behar du baloia jokoa, sarea eginez. Sakean, baloia eskuz edo beso batez jotzen da sarearen gainetik, aurkariaren zelairantz. Jokaldia ez da eteten baloia lurra ukitzen duen arte, kanpora doan arte eta/edo talde batek huts egin eta baloia behar bezala itzultzen ez duen arte.

Hondartzako boleibolean, jokaldia irabazten duen taldeak lortuko du puntua (puntu bat jokaldi bakoitzeko edo ekintza-puntua). Baloia jasotzen duen taldeak jokaldia irabaziz gero, puntua lortu eta sarea egiteko eskubidea eskuratuko du. Jokalariak txandaka arituko dira sakea egiteko.

1. - HAUR ETA KADETEEN MAILETAKO ARAUDIA

1.1. Joko zelaia.- Joko zelaiak honako neurri hauek izango ditu: 16 metro luze eta 8 metro zabal, gutxienez, 2 metro zabal den gune librea inguruan duela. Hala eta guztiz ere, neurriak aldatu ahal izango dira lehiaketa bizkortzeko.

1.2. Sarea.- Kategoriaren arabera, sarearen altuera honako hau izango da:

<u>Kategoria</u>	<u>Mutilak</u>	<u>Neskak</u>
Kadeteak	2,37 m	2,18 m
Haurrak	2,24 m	



1.3. Baloia.- Baloiak esferikoa eta larru malguzkoa izan behar du, eta barruan gomazko edo antzeko materialez egindako ganbera eduki.

Baloia zirkunferentzia 66 eta 68 cm bitartekoa izango da. Pisua, berriz, 260 eta 280 g bitartekoa. Baloiak kolore distiratsuak izan behar ditu, era uniformean. Lehiaketetan, ondoko baloi ofiziala erabiliko da: mikasa VLS 300.

1.4. Jokalariak.- Arabako Eskolarteko Jokoetan parte hartzeko, gutxienez 3 jokalaria eta gehienez 6 izan behar dira. Nahitaezkoa da aktan jasota dauden pertsona guztiek, gutxienez, set batean aritzea partidan.

Jokalariak set-aren amaieran ordeztu behar dira. Set-a jokatzen ari den bitartean, jokalariren bat ordeztu behar bada min hartu edo gaixorik jarri delako, taldeak set hori galduko du. Nolanahi ere, partida berriro hasiko da jokoan beste jokalaria bat sartuta. Min hartu edo gaixorik jarri den kirolariak ezin izango du berriz parte hartu partida horretan.

1.5. Entrenatzailea.- Nahitaezkoa izango da talde guztietan entrenatzaile/hezitzaile bana egotea. Entrenatzaileak aulkian eserita egon behar du partidak irauten duen bitartean eta hutsarteak eskatzeko baimena izango du (araudiari jarraiki). Hutsarteetan izan ezik, ezin izango du jarraibiderik eman (Coaching), ezta partidan esku hartu ere. Jokalariak lehiari dabilzanean esku hartuz gero, epaileari egindako keak edo protestak aintzat hartuta, txartel horiz zigortuko da lehen aldiz (kargu hartzea) eta txartel gorri bigarrenean eta ondokoetan (puntu galtzea eta aurkariet sakea berreskuratzea).

1.6. Partiden iraupena.- Partida 3 set-etan banatzen da. Hiru set horietan onenak irabaziko du partida; set bat irabazteko, hogeita bat puntu lortu behar dira eta, gutxienez, aurkariak baino bi puntu gehiago izan behar du irabazteko. Hirugarren set-era iritsiz gero, 15 puntu lortu beharko dira eta bi puntuko aldeaz irabazi beharko zaio aurkariari. Partidako hutsarte bakarra eskatu ahal izango da.

1.7. Tantoak.- Tantoa lortzeko, ez dago sakea eduki beharrik; hau da, jokoan hutsik egiten ez duen taldeak irabaziko du tantoa.

2. - LIZENTZIAK

Kirol honetan aritzen diren jokalariek hondartzako boleiboleko jokalarirentzako lizentzia eduki beharko dute, Arabako Foru Aldundiak izapidetuta, 2016/27 denboraldiari dagokionez.

3. - ARBITRAJEAK

Arbitro edo epaile lana Arabako Boleibol Federazioaren ardurapekoa izango da. Federazio horrek aukeratuko ditu partidetan jardungo duten epaileak.

4. - PARTIDEN ORDUTEGIA

Arabako Boleibol Federazioak partidetakako ordutegia ezarriko du.

5. - PARTIDETARA EZ AGERTZEA

Ezarririk egotean adierazi den orduan partida jokatzerara agertzen ez diren taldeek honako zigor hauek jasoko dituzte:

- a) lehenengoz ez agertzea: partida hiru set eta hutseko emaitzaz galduko da.



- b) bigarren ez agertzea lehiaketa berean: partida bi set eta hutseko emaitzaz galtzea eta sailkapen orokorrean hiru puntu kentzea.
- c) hirugarren ez agertzea lehiaketa berean: taldeak izan litzakeen eskubide guztiak galtzea. Hala ere, partidak jokatzeko jarraitu ahal izango du, horiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Partida jokatzeko hasteko nahikoa ez den jokalaria kopuru batez agertzen den taldea ez agertutzat hartuko da, eta dagozkion zigorrak ezarriko zaizkio.

Deskalifikatutako talde batek lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatuko dira.

6. - LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK

Lehiaketan honen berezitasunak direla eta, partida guzti-guztiak Mendizorroztako kirolguneko edo Gamarrako kirolguneko hondartza boleiboleko zelaietan jokatu behar direnez gero, ezin izango da aldaketarik egin lehiaketa egutegietan.

Arau horietako atalen bat betetzen ez bada, diziplina arautegiko ez agertzei buruzko artikulak aplikatuko dira.

7. - PARTIDEN EMAITZAK

Arabako Boleibol Federazioak partiden emaitzak bidaliko dizkie interesdun guztiei.

8. - LEHIAKETA MAILA

Taldeen inskripzioa egiterakoan, nahitaez adierazi beharko da lehiaketan parte hartzen duten guztien maila edo kategoria.

9. - EUSKADIKO ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK

Kirolari guztiak haurren kategorian dituela (2003an edo 2004an jaiotakoak), sailkapen onena lortzen duen taldeak Arabako ordezkartzan parte hartuko du Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan.

10. - DIZIPLINA ARAUTEGIA

Uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA, eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoa, izango da aplikagarria.

ARAUDI HONETAN ARAUTU EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK HONDARTZAKO BOLEIBOLEKO BATZORDE NAZIONALAREN JOKO ARAUEI JARRAIKI EBATZIKO DIRA.